

Josu Zubeldia. Usurbilgo Zumitza baserrikoa da. Sagardotako sagarrak ditu

“Sagardogileek etorkizunean hemengo sagarra nahi badute apostu fuerteagoa egin beharko dute”

- Zenbat denbora daramazue zuen etxean sagardotako sagarra eginez?

Pare bat gizaldi, sagarra beti osagarri moduan erabili izan da. Gure etxean ganadua, baratza (Donostiara eramateko) eta sagarra sagardotarako euki izan dugu. Gaur egun 200 bat sagarrondo ditugu, garai ezberdinekoak. Gazteenak duela 7-8 urte ematen hasi zirenak. Sagardotako sagarra beti izan da gure ekonomian osagarri garrantzitsua.

- Azken urteetan sagar asko landatu da Gipuzkoan, baserritar batzuentzat alternatiba produktiboa izan al daiteke sektore hau?

Dagoen egoera eta ordaintzen den prezioarekin ez, Diputazioak nahiz eta dirulaguntza asko eman, gero sagarrak ez badu preziorik ez du ezertarako balio. Esku lana gehiago kostatzen bada geure buruari harrika ematea da. Sagarrondoak landatzeko ematen den dirulaguntza ongi dago baina gero ikusi behar da prezioa eta sagarra ez bada ongi ordaintzen subentziazioa alperrikako gastua izateaz gain sektorearen egoera erreala ez azaltzea dakar. Non eta aliziente gehiago ema-

ten ez zaion, osagarri izaten jarraituko du. Esan dudana alternatiba bat izan daiteke baino ongi ordainduta.

- Baserritar askok kritikatu izan dute, sagarrondoentzako ematen den dirulaguntzak hobeto neurtuta egon beharko lukeela bestela sektoretik kanpo diru asko joaten delako. Zer deritzozu?

Normala da ongi ez ikustea eta iritzi kritikoa izatea. Diputazioak kasu gehiago egin beharko lioke sektoreari, gauzak hobeto antolatzeke. Gaizki inbertitutako dirua da bestela. Jende askok kostatzen ez zaie-lako sartzan dituzte landareak eta gero sasiak hartzen uzten dituzte. Planifikazio falta nabaria da. Sektorearen antolaketa on bat eman dadin interesatuekin hitzegin eta entzuna izan behar da gure iritzia.

- Lehen aipatu duzu prezioak bajutik dabilzala. Zure ustez ze prezio da egokia?

Gutxi dagoen urteetan oso



Josu Zubeldia.

ondo ordaindua izatera iritsi badaiteke ere. 38 pztta sagastian jasota izan daiteke prezio egoki bat baserritarrentzat. Pentsa eskulan handia duela, hemen oraindik eskuz biltzen delako. Badakigu kanpoko sagarraren prezioaren konpetentzia sartzan dela eta horrek merkatzen duela baino berez prezio hori beharko luke.

- Sagardozaleek hemengo sagarrarekiko benetako konpromisua ikusten al duzu?

Oraingo ez, imajena saldu behar dutenean bai baino hortik aurrera ez dago benetako konpromisurik. Prezio berdinean

interesatzen zaie bestela ez. Kasu batzuetan ere kanpoko sagarra garestiago hartzen dute hura makinaz bilduta etortzen baita, zaborrekin eta guzti. Baina garbi dago etorkizunean hemengo sagarra nahi badute apostu fuerteagoa egin beharko dutela.

- Zizarra arazoa dela uste al duzu?

Ez dut uste, ez du zergatik. Zizarra-

tik atera izan da kalitate oneko sagarra. Zenbait urtetan azken joaldiko sagarrarekin baino sagardo hobe atera izan da. Normalean kalitate baxuagokoa da, baino bere prezio batean merkatutzeko modukoa da. Adibide modura botelako zerbeza eta kaña baten arteko konparaketa bezela da.

- Baina sagardogileek beranduagoko sagarra nahia-go dute?

Hori ez dugu ukatzen, baino horrek ez du kentzen lehen esandakoa. Ardoarekin bezela ez da berdin urteko ardoa, krianza eta Gran Reserva. Ziza-

rra lehen joaldikoa da eta hortik azken joaldira denbora dexente pasatzen da eta denbora horretan normalean eguzkiak gehiago jotzen du sagarra eta azukrea igotzen da, beraz sagardo hobe egiteko baldintzak ematen dira, baino sagardogileek prezio bera jartzen diote sagardo guztia.

Ora in arte ez da izan arazoa zizarra, beste kontu bat da ziporraren kasua. Baserritarrak beti egin izan du sagardoa zizarrekin. Sagardozaleak dira berezi nahi dutenak eta baserritarra ere prest dago baino betiko kontura goaz, prezioa.

- Sektoreak aurrera egiteko nondik apostu egin behar da?

Hemengo sagarraren alde eta hemengo barietateak defendituz

- Sagardozaleak batzutan keizaten dira baserritar askok etxean sagardoa egiten dutelako. Zer deritzozu?

Sagardo asko egiten da etxean. Betiko ohitura da, zentzurik gabekoa litzateke baserritar batek bere sagardoa ez egitea. Bere otorduko edaria izan da beti eta aurrera ere egingo da, lojiko delako.